

II - ARABAKO LURRALDE
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

BASTIDAKO UDALA

Lanpostu zerrenda aldatzea

Udalbatzak, 2024ko apirilaren 22an egindako ohiko bilkuran, erabaki zuen udal honetako lanpostu zerrenda aldatzea, eta bat etorritik Euskal Enplegu Publikoari buruzko abenduaren 1eko 11/2022 Legearen 45. artikuluan ezarritakoarekin, onetsitako aldaketa argitaratzen da:

Idazkari-kontuhartzaile lanpostuaren hizkuntza eskakizuna honako hau izango da: 3. hizkuntza eskakizuna. Derrigortasun data: derrigortasun datarik gabe.

Guztiak jakin dezaten argitaratzen da, eta jakinarazten da administrazio bidea agortzen duen erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsoa aurkeztu ahal izango dela, hilabeteko epean, erabakiaren jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoarekin; bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsoa aurkeztu ahal izango da Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegian, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, bat etorritik Administrazioarekiko Auzibideetarako Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluan xedatutakoarekin. Aukerako berraztertze errekurtsoa jartzea erabakitzen bada, ezin izango da administrazioarekiko auzi errekurtsorik jarri errekurtsoa berariaz ebatzi edo isiltasunez ezetsi arte.

Horrez gainera, egokitzen jotzen den beste edozein errekurtso jarri ahal izango da.

Bastida, 2024ko apirilaren 23a

Alkate-lehendakaria
DANIEL GARCIA RUIZ